

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure paketea erosten dutenek udako larunbata emango dute benetako ondarrutar bizitza ezagutzen. Bezeroek Lea-Artibaiko herri guztietako autobus geltoki batean guk jarritako guneetan gure zerbitzura lan egiten duten autobusak hartuko dituzte Ondarroara joateko. Bertan, "Iparkale" kalean dagoen enpresako "Marinela" egoitzara abiatuko dira. Handik, portura joango dira eta arrantza ontzian sartuko dira.

Goizean, Ondarrutik bi kilometrotara egongo dira itsasoan, arrantza-itsasontzi batean. Arrantzan nola egiten den ikasiko dute sareekin etab. Ondoren, itzultzean, "Jose Manuel Erretegian" prestatutako bazkaria gozatuko dute, ondarrutar plater tipikoekin (marmitakoa, atuna etab.). Bertan, haiek goizean harrapatu duten arraina dastatuko dute. Ez badute ezer harrapatzen, izozkailuan arrantzale horiek harrapatutako arrainak sukaldatu eta jango dute.

Bazkaldu eta gero, trikitilari talde batek giroa ipiniko du, hemengo kantak jotzen (Adib.: Amets, amets egin). Trikitilari taldea Unanue Musika Eskolakoa izango da, gaztez osatuta dago. Eskuzabaltasunez ordainduko diegu musikoei. Ondoren, Kofradi Zaharra, "Marino Martinez de Luco" kontserben fabrika eta arrain salmenta bisitatuko dituzte, eta arrain salmenta nolakoa den ikusiko dute.

Gero, enpresako gidari batek Ondarroako kaleetan zehar tour turistikoa bat egingo die. Tourra hondartzan bukatuko da, non bezeroak bainatzeko aukera izango dute autobusera bueltatzeko ordurarte), oparitutako ondarrutar produktuekin (atun-latak, antxoa-latak etab.)

Gure enpresaren ideia gauzatzeko ezinbestekoa da pertsona batzuekin kontaktuan jartzea. Pertsona hauek herriko jendea izan behar dira, enpresaren ekoizpenik handiena lortzeko:



- Euskal Herriko **plater tipikoak** sukaldatzea eskatuko genioke Erretegiko sukaldariari: marmitakoa, atuna tomatearekin, bakailaoa pil pilean, rabak... Bazkarirako atuna, sardinak, antxoa-xerrak "Marino Martinez de Luco" kontserbakk hornituko digu.



- Portura joan eta bertako pertsonekin hitz egingo genuke itsasontzia alokatzeko. Gure enpresarako lankiderik aproposena asteburuan lan egiten ez duen itsasontzi baten jabea da. Portuan, badaude profil honetara egokitzen diren tripulazioak. Alokatzeari lortzen dugunean, turistei kostaldean zehar bidai bat eskainiko diegu arrantzan egiteko aukerarekin.



- Turistak gidatuko dituzten **gidekin** ere kontaktuan jarri beharko ginatke. Gida hauek, **turismo bulegokoak** izan beharko litzateke Ondarroako kaleak ongi erakusteko eta turisten galderei erantzuteko. Gure **herriko historia eta kaleetan dagoen historia** azaltzeko ere gaitasuna izan beharko lukete gidak. Ondarroako leku ezagun batzuen gainean azalpenak eskainiko dizkie turistei: Kofradia, zubi zaharra, eliza...